

3. UDALEZ GAINDIKO TOKI ENTITATEAK SORTZEA

“2017ko proposamenean oso kontuan hartu da eskualde bakoitzeko biztanleen borondatea eta nahia, legez beharrezkoa izango delako adostasun-maila jakin bat eratu ahal izateko”.

2017ko proposamena

Proposatzen diren eskualdeak ezartzeko, aurretik azterketa bat egin da, lurralde antolamenduaren aldetik bere ezaugarriak zein diren ikusteko, Nafarroako Lurralde Estrategiako azpi-eremuetan oinarrituz, eta dauden zerbitzu-egiturak aztertuz.

Oso kontuan hartu da eskualde bakoitzeko biztanleen borondatea eta nahia, legez beharrezkoa izango delako adostasun-maila jakin bat eratu ahal izateko.

Horregatik 13 proposatzen dira, baina kopuru hau aldatu daiteke, baita eremuak berak ere.

2012ko Foru Lege Proiektua

Honek 6 eremu ezartzen zituen aldez aurretik: Erribera, Erdialdea, Lizarraldea, Zangoza-Pirinioa, Bidasoa-Sakana eta Iruñea.

Ez zen eskatzen inolako adostasunik ukitutako toki entitateen aldetik, ezta ukitutako biztanleengandik ere.

Proposamenarekiko adostasuna agertzeko epe bat iragan eta gero, proposatzen zena zen “aipatu elkartzeko-entitateak eratzeko gauza izan ez diren udalak (sic) elkartzeko Foru Lege proiektuak onestea” (nahitaez, bistan denez).